AINHOA
HERRIKO ETXEA



## Réunion publique du 03 Juillet : Aménagement des espaces publics au centre-bourg :

Une centaine d'Ainhoars étaient présents le 03 juillet dernier salle Elkartetxea pour écouter la présentation par le bureau d'études Atelier Anne Gardoni, mandaté par la commune, du projet d'aménagement du bourg :
Dans un premier temps sera présenté le plan guide d'aménagement global du bourg afin d'établir un projet uniforme en termes de circulation, aménagement paysager, mobilier urbain, stationnement, traitement des sols, revêtements etc… et ceci sur 6 secteurs : entrée nord, fronton, karrika nagusia, sortie sud, petite chapelle, parking central, parkings secondaires.
Le document de travail est établi, mais le financement nécessaire pour réaliser ces travaux dépasse largement les possibilités financières actuelles de la commune.
D'autre part, l'abandon par le département, du projet de la déviation de la commune en juillet 2023 suite à l'avis défavorable de la nouvelle municipalité de St Pée sur Nivelle a amené l'équipe municipale à concentrer son action sur un de ces projets avec plusieurs objectifs : améliorer la sécurité et la qualité de vie des Ainhoars en diminuant fortement la circulation allant ou venant de Dantxarinea à travers le bourg, proposer un projet de circulation adapté à la vie quotidienne des Ainhoars, établir un aménagement de qualité dans le bourg compatible avec les capacités

## Uztailaren 3ko biltzar publikoa: eremu publikoaren antolaketa burgu barnean

Ehun bat ainhoar hurbildu dira uztailaren 3an, Elkartetxea gelan, Atelier Anne Garboni ikerketa bulegoko aurkezpena entzutera, herriak burguko antolaketa proiektu bat eskatu ziolarik:
Hastapenean burguko antolaketa orokorraren gida-mapa aurkeztua izanen da, zirkulazioa, paisaia-antolaketa, hiri-altzariak, aparkatzea, lurren tratamendua, estaldurak eta abarren aldetik proiektu homogeneo bat finkatzeko xedez 6 eremutan: iparraldeko sarrera, pilota plaza, karrika nagusia, hegoaldeko jalgibidea, kapera ttipia, aparkaleku nagusia, bigarren mailako aparkalekuak. Laneko dokumentua finkatua izan da, baina obra horiek eramateko behar den dirutza herriak gaur egun ordain dezakeena baino askoz handiagoa da.
Bestalde, 2023ko uztailean Departamenduak herriko saihesbidearen proiektua baztertu duenez, Senpereko herriko talde berriaren kontrako iritziaren ondorioz, Ainhoako herriko taldea bere ekintza proiektu horietako bakar batean biltzera eramana izan da, helburu bat baino gehiagorekin: Ainhoarren segurtasuna eta bizi kalitatea hobetzea burgu barnetik iragaten diren Dantxarinearako joan-etorriak handizki murriztuz; Ainhoarren egunerokotasunari egokia den zirkulazio proiektu bat proposatzea; herriko diru mailako gaitasunekin eta herria zeharkatzen duen D20 errepideari lotutako hertsadurekin bat

financières de la commune, et les contraintes liées à la traversée de la commune par la D20.

La deuxième partie de la réunion publique a consisté à la présentation de ce projet communal axé sur plusieurs points :

**Aménagement du carrefour Larrondoa (petite chapelle)**

Création d'un petit square entre l'aire de jeu et le carrefour en lieu et place des containers actuels
Zone de parking simplifiée pour les autobus

hertsadurekin bat datorren kalitatezko antolaketa bat finkatzea burguan.

Biltzar publikoaren bigarren partea izan da herriko proiektu honen aurkezteko aukera, zenbait puntu direlarik ardatz:

**Larrondoa bidegurutzearen antolaketa (kapera ttipia)**

Plazatxo bat sortzea jostalekua eta bidegurutzearen artean, gaurko edukiontzien lekuan; Autobusak aise aparkatzeko gune




**Aménagement du parking centre bourg**

Revêtement permettant l'absorption des eaux d'écoulement dans l'extension du parking
Plantation d'arbres pour créer des zones d'ombrage.

**Burgu barneko aparkalekuaren antolaketa**

Euri-urak xurgatzea ahalbidetzen duen estaldura aparkalekuaren zabalgunean;
Zuhaitzak landatzea itzalguneak sortzeko



**Secteur double sens parking**

Entre karrika et le parking : élargissement et aménagement de la chaussée pour permettre l'accès direct au parking centre depuis karrika , et sortie directe du parking vers karrika ;

**Aparkalekua norabide bikoitzeko eremuan**

Karrika eta aparkalekuaren artean: eremua zabaltzea eta galtzada antolatzea karrikatik aparkalekura zuzen heltzeko eta aparkalekutik karrikara zuzen ateratzeko gisan.




**Sortie sud**

Aménagement et élargissement de la chaussée dans le quartier des bananiers

**Hegoaldeko jalgibidea**

Bananondoen auzotegiko galtzada antolatzea eta zabaltzea.




**Sens de circulation dans le bourg / bornes de circulation**

2 sens de circulation à l'intérieur du bourg sont à l'étude, suite à la proposition de vente à la commune du chemin dit d'Argi Eder par son propriétaire. Ces sens de circulation ont pour but de rendre pérenne la circulation à sens unique dans le bourg, de permettre la mise en place de bornes de circulation en centre bourg qui empêcheront le trafic routier vers ou de Dancharinea à travers la commune, à certaines heures de la journée, tout en permettant une libre circulation aux Ainhoars

**Zirkulazio norabidea burguan / Zirkulazio mugarriak**

Burgu barnean ibiltzeko bi norabide ikertzen ari gara, Argi Eder bidexkako jabeak bide hau herriari saltzeko proposamenaren ondorioz. Zirkulazio norabide horien helburuak dira burguan norabide bakarreko zirkulazioa iraunkortzea, zirkulazio mugarriak plantan ezartzea, burgu barnetik iragaten diren Dantxarinearako joan-etorriak debekatzeko xedez, eguneko ordu batzuetan, Ainhoarrei ibiltzeko bidea utziz.






Déplacement du lieu de collecte des déchets avec des containers enterrés
Le deuxième temps pour l'équipe municipale est maintenant de choisir le maître d'œuvre pour ces travaux, d'en préciser exactement le montant (estimé aux alentours de 1million d'euros), de rechercher les aides possibles et les capacités de la commune à ce financement pour un début des travaux estimé courant deuxième semestre 2025.

## Déclaration de biens immobiliers pour les propriétaires :

Il est rappelé, qu'en cas de changement de situation d'occupation d'un de vos biens, vous devez l'indiquer à l'administration fiscale via le service en ligne « Gérer mes biens immobiliers », accessible depuis le site impôts.gouv.fr.
En revanche, si vous avez effectué votre



Hondakinen bilgunea lekuz aldatzea edukiontzi lurperatuak erabiliz;
Orain, herriko taldeak bete behar duen bigarren urratsa izanen da obra horiek eramanen dituen obralaria hautatzea, obren kostu zehatza finkatzea (milioi bat euro ingurukoa izan daiteke), Herriko Etxeko diru ahalak eta lor daitezkeen diru laguntzak bilatzea, obrak 2025eko bigarren urte erdian hasteko asmoz.

## Jabeek aitortu beharreko ontasun higiezinak:

Zuen ontasunetariko baten okupatze egoera aldatuz gero, oroitarazten dizuegu zerga-administrazioari jakinarazi behar diozuela "*Gérer mes bien immobiliers*" lineako zerbitzuaren bidez, impôts.gouv.fr webgunean.
Haatik, okupatze egoera aitortu baldin bazenuten

déclaration d'occupation en 2023 et qu'aucun changement ne s'est produit depuis, vous n'avez pas à en faire de nouvelle.
Si vous n'êtes pas à l'aise avec les outils numériques, vous pouvez utiliser le formulaire intitulé « déclaration d'occupation des locaux par le propriétaire » que la mairie peut vous fournir. L'espace France Services d'Espelette ou le service des impôts peut également vous accompagner dans vos démarches en ligne.

## Prévention des incendies de forêt : Obligation légale de débroussaillement (OLD) :

Les propriétaires des constructions et installations de toutes natures, situées dans et jusqu'à 200 mètres des bois, forêts, landes, maquis, garrigue, plantations ou reboisements doivent respecter les OLD

## Fêtes d'Ainhoa :

Elles auront lieu cette année du 14 au 18 août 2024.
Le comité des fêtes ne manquera pas de distribuer le programme précis de ces fêtes.

## Animations :

1er et 8 août à 21h église d'Ainhoa
Concert d'Atsulai Abesbatza

10 août, à la tombée de la nuit,
cinéma plein air Les sorcières d'Akelarre
En basque, sous-titré en français,
(avec le soutien de l'Institut culturel basque)
Gratuit

## Aide à l'achat de récupérateur d'eau de pluie :

Un habitant du Pays Basque consomme en moyenne 192 litres par jour d'eau potable. C'est 15% de plus que la moyenne nationale. Pour encourager le territoire à davantage de sobriété, la Communauté d'Agglomération Pays Basque




2023an eta aldaketarik ez bada izan geroztik, ez duzue aitorpen berririk egin behar.
Tresna digitalak erabiltzeko ez bazarete trebe, Herriko Etxeak eman diezazuekeen "*Déclaration d'occupation des locaux par le propriétaire*" inprimakia erabil dezakezue.
Ezpeletako France Services guneak edo zerga zerbitzuak ere lagun zaitzaketete lineako urraspideetan.

## Oihaneko suteen prebentzioa: sasiak garbitzeko legezko eginbeharra

Baso, oihan, larre, sasiarte, landaredi edo oihan berritze gune batetik 200 metrotara kokatutako mota orotako eraikinen jabeek sasiak garbitzeko legezko eginbeharra bete behar dute.

## Ainhoako bestak:

Aurten, 2024ko agorrilaren 14tik 18ra iraganen dira. Besta batzordeak bestetako egitarau osoa zabalduko dizue laster.

## Ekitaldiak:

Agorrilaren 1ean eta 8an, 21:00etan, Ainhoako elizan, Atsulai abesbatzaren kontzertua.

Agorrilaren 10ean, ilunabarrean, aire zabaleko zinemaldia Akelarre filmarekin.
Euskaraz, frantsesezko azpitituluekin
(Euskal Kultur Erakundearen laguntzarekin)
Urririk

## Euri-urak biltzeko ontziak erosteko diru laguntzak:

Iparraldeko biztanle batek 192 litro edateko ur kontsumitzen ditu egunero, bana beste. Frantzia mailako bana bestekoa baino %15 gehiago da. Lurraldea urritasun gehiagora bultzatzeko, Euskal Hirigune Elkargoak 50 €ko diru laguntza

L'aide n'est pas soumise à condition de ressources et n'est pas limitée par foyer. Les propose une aide de 50 € pour l'achat de récupérateurs d'eau de pluie.
L'aide n'est pas soumise à condition de ressources et n'est pas limitée par foyer. Les demandes peuvent être adressées toute l'année en ligne sur le site https://www.communaute-paysbasque.fr/aide-a-lachat-de-recuperateurs-deau-de-pluie ou par voie postale au siège de la Communauté d'Agglomération Pays basque à Bayonne.

## Recensement :

Il aura lieu du 16 janvier au 15 Février 2025, un agent recenseur se présentera à votre domicile

## Ecole :

A/En janvier, dans le cadre du projet "pHare" (projet de sensibilisation et de lutte contre le harcèlement en milieu scolaire), les enfants avaient participé à un concours national "Non Au Harcèlement".

Ils sont lauréats du prix départemental du concours, dans la catégorie école – vidéo !!!!
Un grand bravo et un grand merci à tous les élèves pour leur investissement, leur créativité et leur sensibilité.

B/ Les élèves de CE2-CM1-CM2 ont participé au concours AMOPA "Plaisir d'écrire», en devant inventer une poésie sur le thème des jeux Olympiques.
Nous avons eu 5 Lauréats départementaux dans la classe ! Toutes nos félicitations

C/ Dans la suite du projet photo mené cette année avec Abel Bourgeois, artiste photographe, nous sommes heureux de vous partager l'audio guide d'Ainhoa réalisé par les élèves CE2-CM1-CM2.
Pour le découvrir, vous devez installer l'application IZI travel. Une fois sur l'application cherchez "Ainhoa". Il y a deux audio-guides disponibles. Celui de l'école s'appelle "Bienvenue à Ainhoa"!!

proposatzen du euri-urak biltzeko ontziak erosteko.
Laguntza hau ez da irabazien araberakoa eta bat baino gehiago eska daiteke etxe bakoitz. Eskaerak linean egin daitezke urte osoan zehar

https://www.communaute-paysbasque.fr/aide-a-lachat-de-recuperateurs-deau-de-pluie webgunean, edo gutunez Euskal Hirigune Elkargoaren Baionako egoitzara idatziz.

## Errolda:

2025eko urtarrilaren 16tik otsailaren 15era eginen da, erroldagile bat etorriko zaizue etxera.

## Eskola:

A/ Urtarrilean, "pHare" proiektuaren harira (eskolako jazarpenaren aurka borrokatzeko eta sentsibilizatzeko proiektua), haurrek Frantzia mailako "Jazarpenari ez" lehiaketan parte hartu dute.

Lehiaketaren Departamenduko saria irabazi dute, eskola - bideo sailean!!!
Txalo handi bat eta eskerrik beroenak ikasle guziei erakutsi duten engaiamenduagatik, sormenagatik eta sentsibilitateagatik.

B/ Lehen mailako 3., 4. eta 5. urtekoek "Idazteko atsegina" AMOPA lehiaketan parte hartu dute, Joko Olinpikoei buruzko olerki bat asmatuz. Ikastaldeko 5 ikasle izan dira Departamenduko saridun!
Goresmenak.

C/ Abel Bourgeois argazkilari artistarekin aurten eramandako argazki proiektuari jarraikiz, lehen mailako 3., 4. eta 5. urtekoek egindako Ainhoako audiogida zuekin partekatzen dugu atsegin handiz.

IZI travel aplikazioa instalatu behar duzue.
Behin instalatu eta, "Ainhoa" bilatu behar duzue.
Bi audiogida dira eskuragarri. Eskolakoa "*Bienvenue à Ainhoa*" deitzen da!!

## Télévision : Déploiement de l'Ultra Haute définition (UHD) sur la TNT

La TNT en Ultra-Haute Définition (UHD) a commencé son déploiement en France le 23 janvier 2024. Elle sera disponible dans votre commune à partir du 9 juillet 2024.

Dans sa décision du 25 octobre 2023, l'Arcom a ainsi attribué à France Télévisions le droit de diffuser France 2 en UHD à compter du mois de janvier 2024. France 3 (antenne nationale) sera également accessible en UHD du 10 juillet au 10 septembre 2024. Ces deux chaînes seront disponibles respectivement sur les numéros 52 et 53. Elles continueront bien sûr à être diffusées dans leur qualité actuelle (haute définition).
La diffusion en UHD est appelée à couvrir une large partie du territoire.
Selon l'Observatoire de l'équipement audiovisuel des Français, plus de 40 % des foyers reçoivent la TNT par une antenne râteau, sur au moins un poste du foyer : ces téléspectateurs devront, le jour même de l'arrivée de l'UHD, procéder à une recherche et mémorisation des chaînes qui leur permettra, si leur équipement est adapté, d'accéder aux nouvelles chaînes UHD.
- Le site de l'Arcom :

https://www.arcom.fr/bienvenue-sur-la-page-dediee-aux-professionnels-deploiement-de-lultra-haute-definition-sur-la-television-numerique-terrestre

- Le site internet de l'ANFR : www.recevoirlatnt.fr
Pour les personnes qui n'auraient pas accès à internet, l'ANFR met également à disposition son centre d'appel au **0970 818 818** (appel non surtaxé du lundi au vendredi de 9h à 12h et de 13h à 17h).

BEL ETE A TOUS

## Telebista: Bereizmen Oso Handiko (BOH) telebistaren hedapena TNT sarean:

Bereizmen Oso Handiko (BOH) TNT hedatzen hasi da Frantzian 2024ko urtarrilaren 23an. Zuen herrian eskuragarri izanen da 2024ko uztailaren 9tik goiti.

2023ko urriaren 25eko erabakiaren bidez, Arcom erakundeak France 2 katea BOH moduan hedatzeko baimena eman dio France Télévisions sareari 2024ko urtarriletik goiti. France 3 kate nazionala ere BOH moduan izanen da ikusgai 2024ko uztailaren 10etik irailaren 10era. Bi kate horiek aurkituko dituzue 52 eta 53 kateetan. Erran gabe doa gaurko kalitatean hedatzen segituko dutela (bereizmen handia).
BOH moduko hedapenak lurraldeko zati handi bat estaliko du.
Frantsesen ikus-entzunezko tresnen behatokiak dioenez, familietako %40 baino gehiagok TNT errezibitzen dute antena hertziar baten bidez, etxeko telebista batean gutienez: horiek, BOH hedatuko den egunean berean, kateen bilaketa eta memorizatzea egin beharko dute eta, tresnak egokiak baldin badira, BOH kate berriak begiratzen ahalko dituzte.
- Arcom erakundearen webgunea:

https://www.arcom.fr/bienvenue-sur-la-page-dediee-aux-professionnels-deploiement-de-lultra-haute-definition-sur-la-television-numerique-terrestre

- ANFR agentziaren webgunea:www.recevoirlatnt.fr

ANFR agentziak bere dei-zentroa Internetik ez dutenen esku utziko du **0970 818 818** zenbakira (gain kosturik gabeko deia, astelehenetik ostiralera, 9:00-12:00 eta 13:00-17:00).

UDA ON DENERI

## Informations santé :

**Un avis medical sur**
**Sur ïnhoa – Sare-**
**Saint Pée sur Nivelle**
**Qui contacter ?**

Ci-dessous l'ensemble des professionnels

## Osasun arloko argibideak:

**Mediku-iritzi baten bila**
**Ainhoan – Saran –**
**Senperen?**
**Norekin harremanetan jarri?**

Profesional guziak gorago

1 ➡ **Votre médecin traitant habituel**

**Zure ohiko etxeko medikua**

2 ➡ **Un médecin généraliste de Sare ou St Pée**

Motifs de médecine générale
Jours et horaires ouvrés
Prise de RDV Tél/ site internet

**Sarako edo Senpereko orotako mediku bat**

orotako medikuntza arazoengatik
Lan egun eta ordutegi denboran
hitzordua hartuz telefonoz/Internetez

**A Sare** / **Saran**

**Dr BASTIAT medikua** Tel: 05 59 54 23 76
**Dr BRIZARD – Dr DE BEAUCHAMP – Dr MATHIERE medikuak** Tel: 05 59 54 20 18
(orotako medikuntza – traumatologia arina – jostura)

**Senperen**

**ARQUE medikua** Tel: 05 59 51 99 99
**FOUCAUD – LASSERRE medikuak** Tel: 05 59 51 53 43
**LEVI – LICEAGA – LOUSTAUNAU NARBEY medikuak** Tel: 05 59 54 51 11
**SARTHOU medikua** Tel: 05 59 54 12 87

3 ➡ Motifs medicine générale / petite traumatologie – 7/7

orotako medikuntza arazoengatik / traumatologia arina - egunero

**Tel: 05 59 03 30 00 / rdvasos.fr**

4 ➡ **Les urgences de la Polyclinique Cote basque SUD**
**7 rue Léonce Goyetche**
**64500 Saint Jean de Luz**
Motifs complexes nécessitant un plateau technique
En cas de doute faite le 15 avant de vous déplacer

**Tel: 05 59 51 74 00**

**Hego Lapurdiko poliklinikaren larrialdiak**
**Léonce Goyetche karrika, 7**
**64500 Donibane Lohizune**
tresneria teknikoa eskatzen. duten arazo bereziak
Zalantzarik ukanez gero, 15 zenbakira deitu

5 ➡ SAMU - Centre 15

**Pour toute urgence vitale ou doute sur orientation**

**bizi-larrialdi baten kasuan edo nora joan jakin ezean**

*Le territoire s'organise au mieux pour vous prendre en charge. Nous comptons sur vous pour honorer les RDV médicaux pris par respect pour les soignants*

*Lurraldea ahal bezain ongi antolatzen da zuen artatzeko. Zuekin kontatzen dugu hartutako hitzorduetara agertzeko, artatzaileen errespetuz.*

*Les acteurs de santé du territoire.Lurraldeko osasunaren arloko langileak.*

***www.hegolapurdi.fr***